

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA

2022-2023 ikasturtea

Ikus-Entzunezko Komunikazioko Gradua

dokumental labur baten argazki zuzendaritza eta etalonajea

# Historier fra Gokk



Egilea: Xabier Martinez Ortiz de Pinedo

Zuzendaria: Bea Narbaiza Amillategi



# Aurkibidea

1. Sarrera .....	3
2. Dokumental laburraren fiitxa.....	5
3. Argazki zuzendaritzaren planteamendua.....	7
4. Ekipoa.....	10
5. Grabaketa	
5.1. Lehenengo kapitulua.....	13
5.2. Bigarren kapitulua.....	15
5.2. Hirugarren kapitulua.....	17
6. Etalonajea.....	20
7. Bukatzeko.....	26





# 1.Sarrera

2021ean Erasmus programarekin Norvegiara joan nitzen urte betez. Trukerako Unibertsitatea fiordo batean dagoen Volda izeneko herri txiki batean dago. Voldak, guztira, 11.000 biztanle ditu, horietatik, 7.000, ikasleak dira.

Norvegiara iristean, natura, aurrez aurre jartzen zaizu; paisaiak, ura, argia, iluntasuna... gailendu egiten zaizkizu; begiratzera derrigortzen zaituzte, behatzera. Argazki zuzendaria izan nahi duen batentzako erronka izugarria: nola ekarri enkuadre baten barrura mugaezina dirudiena, nola ezarri subjektuen eta espazioaren arteko harremana. Berehala hasi nintzen lanean

Unibertsitatea elkargune bat da, Interes berdinak dituen jendea ezugutu eta lan egiteko aukerak eskaintzen dituen espazioa. Bertan ezagutu nuen Mariell Winther, norvegiarra, dokumentalaren zuzendaria. Elkarlanean fikziozko film bat egin genuen eta gerora, buruan zuen dokumental labur baten argazki zuzendaritza eta etalonajea egiteko proposamena egin zidan.

Istoria 400 biztanle dituen arrantza-uharte txiki eta urrun batean kokatzen da, Røsten, Norvegia iparraldeko Lofoten artxipelago ezagunean. Mariellen aita bertan jaio zen eta berak aspaldi alde egin bazuen ere, aitonak han jarraitzen du. Pelikulak ia isolatuta bizi diren biztanle batzuen testigantza bidez, espazio baten erretratua egin nahi du.

Proiektu honek Vikken Filmsenter, Norvegiako filmmaker elkarteak ematen dituen diru-laguntzetako bat lortu zuen, 13.000 koroa norvegiar (1.300 euro inguru) horrek gastu batzuk ordaintzeko aukera ematen zuen, besteak-beste Gasteiztik Røstenerako bidaia. Horrela abiatu nintzen 2022ko urriaren 19an.







## 2. Dokumental laburraren fitxa

### Loglinea

Aniztasuna ez da hiri handien monopolioa, edonon azalaratzen da.

### Sinopsia

Herrian ez dago ez zuhaitzik ezta harkaitzik ere, ezkutatzea ezinezkoa da, dena dago agerian. Indian jaiotako emakumeak Rosten aurkitu zuen jatorri indiarreko bere senarra bihurtuko zen gizon harroa. Maitasunaren planetako estralurtarra dela ozenki adieratzen duen ile-apantzailea. Irlako zaharrena den aitonak hiltzen denean jarraitu beharreko jarraibideen berri emateko aprobeztatuko du bilobaren bisita. Onerako eta txarrerako, honelako komunitate baten parte izatea, magikoa da. Gauza garrantzitsu guztiak dituzu hurbil baina horietako zerbait desagertzen bada, edo, aldegin behar baduzu...orduan ezer gabe gelditzen zara. Testigantza desberdinen bidez egindako eguneroko erretratu bat.

### Esteka

<https://www.youtube.com/watch?v=plmRi1m4Nw4>







## **Zuzendaria**

Mariell Winther

## **Ekoizle ejekutiboak**

Mediefabrikken eta Vikken UNG

## **Argazki zuzendaria**

Xabier Martinez

## **Soinu postprodukzioa**

Ane Zuagaza

## **Musika**

Jøstein Grondhal

---

## **Luzeera**

40 min / 16:9 / Color / 4k

## **Hizkuntza**

Norvegiarra (gaztelaniazko subtituluak)





### 3. Argazki zuzendaritzaren planteamendua

Bai, istorioa uharteko biztanle batzuen ingurukoa izango zen, baina ez genuen horretara mugatu nahi haien testigantzak bilduz soilik. Hain bereziak ziruditen paisaia horiek (nik oraingoz argazkietan baino ikusi ez nituenak) metrajean ere protagonismo handia izango zuten, interesgarriena iruditzen zitzaiguna pertsonaia horiek bizi ziren ingurune hezigaitzarekin zuten harremana baitzen. Hortaz, uharte bera ere pertsonai bat osatu dezaten nahi genuen bere balio narratiboa ere izateko. Horretarako plano general ugari erabiliko genituen bertan bizitzeak suposaten duen bakartasuna irudikatzeko.

Egia esan, etengabe galdetzen nion neure buruari nola norbaitek erabaki dezakeen mundutik hain urrun dagoen uharte txiki honetara bizitzera joatea. Harrigarria bada ere, geroago jakin nuen film laburrean agertzen diren 4 pertsonaietatik 3 arrazoi beragatik joan zirela hara: maitasunagatik.



Arlo teknikoagoei dagokienez, hasieratik argi geneukan proiektu honetarako tripodea ia ez genuela erabiliko; alde batetik, bagenekielako tripode bat erabiltzeak grabazio-erritmoak moteldu egingo zituela, lortu nahi genuen dinamismotik urrunduz.

Izan ere, edozein momentuan filmatzeko prest egon behar nintzen, planoak azkar-azkar konposatuz. Honetan ere, intuizioaz baliatu behar nintzen noiz grabatu jakiteko, norbegiarra ez baitut ulertzen. Bestetik, zuzendariari ez zaio asko gustatzen tripodea erabiltzea, beraz kamara eskuan grabatzeko hautaketa erraza izan zen. Gainera, oso garrantzitsua zen jendea kamerarekin eroso sentitzea eta horretarako diskretuak izan behar ginen; tripodea une oro erabiltzeak hori zaildu zezakeen.









# 4. Ekipoa

*Historier fra gork* nire lehenengo dokumentala izan da eta baita orain arte egin dudan piezarik luzeena ere. Edozelan ere, banekien horrelako zerbait grabatzeko *rig* trinko bat beharko nuela, oso handia izango ez zena eta martxan jartzea gutxi kostatuko zitzaidana.



Kamerari dagokionez, Black Magic Pocket Cinema Camara 6K erabili dugu. Mediefabrikkenek Sony FS7 bat eskaini zigun arren (Sigma zinema-lente kit batekin batera), azkenean nire kamera erabiltzea erabaki nuen, batez ere FS7arekin alderatuta txikia delako. Hala ere, erabaki zaila izan zen, kamera horrek, eta batez ere lente horiek, irudiaren kalitate handiagoa eskaintzen dutelako.

Sonya ez erabiltzeko beste arrazoi bat berarekin grabatzeko Easyrig bat erabili behar izatea izan zen, haren pisua eta Sigma lenteena oso handia izango baitzen denbora guztian kamera eskuan eramateko. Bestalde, dokumental bat grabatzean oso garrantzitsua da diskrezioa eta askotan oharkabean pasatzea; hori Black Magic-ak eskaintzen zidan morfologiari dagokionez, argazki-kamera arrunt bat dirudielako.

Azkenik, beste puntu garrantzitsu bat BlackMagic 6K-k RAWan grabatzeko ematen duen aukerarekin du zerikusia. Gehiegizkoa dirudien arren, oso ondo dator, kalitaterik galdu gabe postprodukzioan planoak erreskalatu edota egonkortu ahal izateko aukera ematen duelako, Era honetan ziurtatuta geneukan azken piezaren formtua 4K izatea. Fikziozko zerbait grabatzeak plano bakoitza milimetroan planifikatzeko eta osatzeko aukera eman ohi dizu, baina proiektu honetan ezinezkoa egingo zitzaidan plano guztiak grabazioan perfektuak izatea eta beraz, postprodukzioan zuzenketarako askatasuna izatea ezinbestekoa zen.

Objektiboetara dagokienez, Bmpcc-ak EF montura du. Hori horrela izanik, 20 euroko kostua duen egokigailu batekin nire 35mm-ko kamerarekin erabili ohi ditudan eta 70eko hamarkadakoak diren Olympus Zuiko 2 lenterekin konbinatzea aukeratu nuen. Alde batetik, 28mm f/2.8 bat eraman nuen, 45mm moduko zerbaitetan bihurtzen zena, eta, gainera, 50mm f/1.8 bat, 80mm batean bihurtzen dena.



Foku-distantziaren handitze hori Bmpcc 6k delakoak *Super 35* sentsoare bat duelako gertatzen da. Modu horretan, *full frame*-erako lenteak muntatzerako orduan, murrizketa-faktore bat dago. Egia esan, objektibo angularrago bat ere eramatea nahi nuen, eta azkenean angularregia den 8mm bat ere eraman nuen, plano bakar baterako erabili nuen.

Olympus objektiboetara itzuliz, zaharrak izan arren, lan bikaina egin dutela esango nuke. Mota horretako *vintage* lenteak oso modan jartzen ari dira bideorako, eta jende askok erabiltzen ditu gaur egungo kamerekin. Izan ere, gaur egun Ebay bezalako webguneetan horrelako lenteak 50 euro baino gutxiagoren truke aurki daitezke, eta, beraz,




eskaintzen duten kalitatea kontuan hartuta, errentagarriak baino errentagarriagoak dira. Lortzen duten desenfokea edo bokeha ere aipatzekoa da, oso bereizgarria baita. Gainera, aukeratutako objektibo biak 28mm eta 50mmkoak oso argitsuak direnez, ezaugarri hori faktore garrantzitsua zen proiektu honetarako, Kontuan hartu behar da Norvegiako iparraldean urrian egunak oso laburrak izaten hasten direla eta grabaketa azaroan egin genuela. Helburu horien balizko oztopo bakarra da "nitidoegiak gardenegiak" izan daitezkeela lente modernoekin alderatuta, baina ez dago postprodukzioan konpondu ezin daitekeenik... Era berean, ni, beti, zoomaren ordeaz prime lenteak erabiltzearen aldekoa naiz, bilatzen den konposizioa lortzeko egin beharreko ahalegina handiagoa delako.

Horrelako proiektu batean, ez dago inoiz enkoadratzeko nahi beste denbora; beraz, uste dut hobe dela foku-distantziei dagokienez aukera murriztuekin jokatzeko. Zoom lenteak erabiltzeak planoen arteko desberdintasunak nabarmenduko lituzke, sendotasunean eragin negatiboa izango zuelarik.

Irudian zaratarik ager ez dadin, granorik ager ez dadin ziurtatzeko, Bmpcc 6k argi gutxiko baldintzapean emaitza egokiak ematen ditu, hori Super 35 sentsore baten inplementazioaren ondorioa da. m4/3ko sentsore bat duen Bmpcc 4k bezalako aurreko ereduarekin alderatuta, diferentzia handia da. Honi lotuta, Kamera honen beste ezaugarri garrantzitsu bat ISO dual natiboa duela da: 400 eta 3200. Horrek esan nahi du bere rango dinamiko handiena lortzen duela (nahiko altua dena, 12 pauso ingurukoa) ISOaren 2 aukera horiekin, nahiz eta 3200ekin pixka bat txikiagoa izan.

Hala ere, kontrapartida moduan aitortu behar da, mugimendu handiko planoak grabatzerakoan kamera honetan, rolling shutter efektua saihestezina dela. Horrek esan nahi du, adibidez, kamerak paneo azkar bat egiten duenean irudia distortsionatu egiten dela mugimendu horretan.



Kamera alde batera utzita, beti Tiffen Pro Mist 1/4 filtro bat neraman ipinita, eremu oso argitsuetan hain bereizgarria den glow hori egiteaz gain, beltzak apur bat altxatu eta "gardentasuna" jaisten duena. Nire planetan ND filtro bat une oro erabiltzea zegoen, baina irudia bineteatzen zuela ikusi ondoren (objektiboan bertan ipinita zihoan, eta ez Matte Box batean), alde batera uztea erabaki nuen. Hala ere, ND filtroa ez erabiltzea desabantaila handia da, izenak berak adierazten duen moduan, irudiaren eremu argitsuenak neutralizatzen baititu irudi uniformeagoa lortzeko; baina gauza baten eta bestearen artean aukeratu behar izan nuen.

Gainerako gailuei dagokienez, Mediefabrikken-ek Sachtler tripode bat utzi zigun, paparreko mikrofono batzuk (azkenean erabili ez genituenak), Rode NTG-2 mikrofonoa (ia beti kameraren gainean zegoena) eta Kino Flo bat, azkenean ez eramatea erabaki genuena, garraiatzeko orduan izango genituen zailtasunengatik. Beraz, dokumental guztia argi naturalez grabatuta dago, inolako erreflektorik, bounce edo negativefillik gabe. 2 pertsonako taldea baino ez ginen (zuzendaria eta argazki zuzendaria), beraz, ezin genuen aurrera eta atzera ibili aparatu askorekin. Egia esan, asko gozatu dut horrela grabatzen, beti oso azkar pentsatzera behartu nau, espazioen argi naturalari asko erreparatuz, hori besterik ez geneukalako. Erronka izugarria, egia esan.



# 5. Grabaketa





## 5.1. Lehenengo kapitulua

Lehen kapitulu honetan, Harjeetek uhartea bere ikuspegitik aurkezten digu, eta Indiatik duela 30 urte baino gehiago iritsi zenetik izan dituen esperientziez hitz egiten du. Harjeetek lehenengo protagonista aurkezteko zubi lana egiten du: Kulwant, orain bere senar ohia dena eta bera Rostera etorri izanaren arrazoia.

Bitxia bada ere, bakoitzak kafetegi bana du uhartean, hau zan zen zuzendariarentzako elementu narratibo interesgarriena. Argazki zuzendaritzatik erronka, barrutik nahiko antzekoak diren bi kafetegiak bi pertsonajeen dikotomia islatzeko bi modu desberdinetan erakustea zen. Harjeet Kulwant baino apalagoa eta lasaiagoa da. Kulwant, Marielliren aitaren esanetan, pertsonaje estranbotikoa eta harroputza da, asko okupatzen duten horietakoa, la nahigabe dokumentaleko lehenengo protagonista bilakatu dena.





Lehenengo asmoa Harjeetek (bere ohiak) ere paper nagusi bat izatea zen. B pertsonajeak era desberdinean grabatu nahi genituen. Harjeeten izaera kontuan hartuta, atal hori era konbentzionalago batean grabatzea planteatu nion Marielli; tripodea erabiliz elkarrizketan eta ikuspuntu nahiko "objektibo" bat bilatuz.

Harjeeten kafetegian grabatzeko erronka nagusia kanpoaldeko argiaren tenperaturaren eta barrualdekoaren arteko oreka egokia lortzea izan zen, egun lainotsu bateko argiaren eta barnealde bero horretako argiaren arteko aldea izugarria baitzen. Horregatik zuri balantzea 4000k-n jartzea, erabaki nuen postprodukzioan kolorea lantzeko malgutasun nahikoa izateko. Hala ere, proiektu honetan enkoadraketei eman nien lehentasuna une oro zurien balantzea egiteari baino, eszenaren aurretik jartzeko denbora oso urria baitzen beti. Bestalde, dena BRAWn grabatzea erabaki nuen; beraz, postprodukzioan zurien balantzea zuzendu ahal izango nuen arazorik gabe.

Grabaketan aurre egin beharreko beste "arazoetako" bat barrualdearen eta kanpoaldearen arteko argi kantitatearen desberdintasuna izan zen, baina, egia esan,

Bmpccaren rango dinamikoak asko harritu ninduen, ez baitzen apenas xehetasunik galtzen leihoetatik harago ikusten ziren kanpoaldeetan. Hala ere, aurrerago hitz egingo dut gauza horiei buruz, pieza honen kolorea nola editatu nuen sakontzean.



Egia esan, ez ginen oso pozik atera Harjeetekin egindako grabaketatik, elkarrizketan kontatu ziguna ez baitzitzaigun oso garrantzitsua irudi. Horrela, Mariellek dokumentala berregituratzea erabaki zuen, Harjeetek narrazioan pisu gutxiago izan zezan eta aldi berean irla aurkezteko baliagarria izan zedin.

Entzundakotik abiatuta, pentsatzekoa zen Kulwantek joko gehiago emango zuela eta horrela gertatu zen.

Kulwanti egindako elkarrizketarako, kamera eskuan grabatuko genuela erabaki genuen, beste ikuspuntu bat bilatuz. Izan ere gustuko genuen dokumentala Harjeetekin modu nahiko konbentzionalan hastea eta bat-batean Kulwantekin zerbait estranbotikoagoan eta aleatorioagoan bihurtzea.

Elkarrizketa hasi genuenetik, kamera eskuan izan nuen une oro, eta intuizioak eta zuzendariak ematen zizkidan jarraibideek gidatzen ninduten. Oraingoan ere Rinorekin grabatuz esperimentatu genituen "arazo" berberak izan nituen: alde handia leihoetatik eta barrualdetik ikusten zenaren artean, argi kantitateari eta kolore tenperaturari dagokienez. Hala ere, klipak ezaugarri horiekin etalonatu ondoren, nahiko pozik geratu naiz emaitzarekin.



## 5.1. Bigarren kapitulua

Lehen kapituluan, dokumentalak uhartearen erretratua egiteko hartuko duen norabidea adierazten da jada: bizimodu eta izaera desberdinak dituzten pertsonajeak ardatz hartuta egitea kontakizuna. Horrela, bada, bigarren kapituluko protagonista Tor Halvorsen ("The Creator") da. Tor artista multidiziplinarra da, duela denbora bat arrantza-uharte txiki honekin erabat disrumatzen duen lokal bat eraikitzea erabaki zuen, noizbehinkako diskoteka eta arte-galeria gisa funtzionatzen duena.

Bestalde Torrek, Maitasunaren Planetatik datorren estralurtarra dela baieztatzen duenak, ile-apaintzaile lanak ere egiten ditu espazio berezi horretan.





Dokumentalaren parte hau izan zen uhartean grabatu genuen azkena, Harjeet eta Kulwantekin eta zuzendariaren aitonarekin egindako grabazioak amaitutzat eman ondoren. Tor Halvorsen, kapitulu honetako protagonista, artista norvegiarra da. Arrain-fabrika zahar bat lokal alternatibo oso exotiko bat bihurtzea erabaki zuen, a priori, horren tradizionala den arrantza-uharte horrekin erabateko talka egiten duena; nahikoa arrazoi Mariellek eta biok dokumentalaren parte izan zedin nahi izateko.



Uhartera iritsi ginenean jakin genuen bere lokala ixtear zegoela, ez omen zuen izan espero zuen arrakasta, baina horrek ez zituen gure asmoak aldatu, eskerrak.

Lokalera iritsi bezain laster, txundituta geratu nintzen, lekua izugarri fotogenikoa zen eta kolore ederrak zituen, urdina eta laranja-koloreko tonuak nagusitzen zirelarik. Horren famatua den *Orange teal* lookak (kasu honetan oso naturala), bi kolore osagarri horiek sortuta, leiho handi haietatik sartzen zen ilunabar ederrari gehituta, giro magikoa ematen zioten lokalari. Egia esan, zorte handia izan genuen geratu ginen eguna eguzkitsua izan zelako, egun gehienak egun lainotsuak eta euritsuak izan baitziren. Bestalde, kapitulu hau eguzkitsua izateak ere badu bere garrantzi narratiboa, Tor "argizko izakia" baita; gainera, orain arte uhartea beti lainotuta dagoen leku urrun gisa aurkezten zaigu, eta, beraz, lehenengo eta bigarren kapituluaren artean funtzionatzen duen antitesi bat dago, bigarrenak bizitasun handiagoa duelarik.



Lehenengo kapituluaren ez bezala, ohiko elkarrizketarik ez genuela egingo erabaki genuen, baizik eta artistak gidatutako house tour moduko bat egingo genuela, non Mariellek hainbat gai proposatuko zizkion. Nik ere bere burua kokatzeko jarraibide batzuk eman nizkion, ahalik eta argiztapen eta enkoadraketa onenak lortzeko.

Alderdi teknikoei dagokienez, kapitulu honetan ere 8 mm-ko objektiboa erabiltzea erabaki nuen, plano bat grabatzeko baino ez bazen ere. Arrain begiaren fan handia naiz, eta leku hau egokia iruditu zitzaidan bere arkitektura eta esentzia exotikoarekin erabiltzeko.



## 5.1. Hirugarren kapitulua

Azkenik, Turbjornen egunerokotasuna erakusten dugu. Zuzendariaren beraren aitona, Røsteko gizonik zaharrena da 89 urterekin. Duela urte batzuk, emaztea hil zitzaionetik, bakarrik bizi da eta erabat autonomia da.

Berak aitortzen duen moduan egongela egin zutenean bertan betirako gelditzea erabaki zuen. Hilobira erori arte bitartean bertan bizi nahiko luke, ez du aldegin nahi.





Zuzendariaren aitonaren egunerokotasuna erretratatu nahi izatetik sortu zen proiektu hau. Horrela, kapitulu bihurtu den tarte honek, pelikula osoaren tematika zuen abiapuntuan. Edozelan ere, bere ingurua eta inguruko beste pertsonajeeek bere testuinguruaren erreferentzia ere badira, lekuaren beste adierazle batzuk.

Kapitulu hau filmatzea beste bi atalekiko guztiz desberdina izan protagonistaren etxean bizi izan baikinengrabazioak iraun zuen denboran. Hasiera ez zen erraza izan, ez Turbjornek argi eta garbi utzi zion Marielli ez zuela guk grabatzerik nahi; bere bizitza ez zela dokumental bat egiteko bezain interesgarria. Orduan une oro ezkutuan grabatuko genuela erabaki genuen. Jakina, dokumentalaren une batzuetan bazekien grabatzen ari nintzela, baina berdin zitzaion baldin eta espreski hori aipatzen ez bagenuen edo "Tira, orain grabatu egingo dugu" bezalako ezer esaten ez genion bitartean. Egunak aurrera joan ahala, kamera aurrean egotea gustatzen zitzaiola ematen zuen, nahiz eta hitzez kontrakoa adierazi.

Ordu asko eman genituen elkarrekin, kapitulu hau egun desberdinetan jasotako irudiekin osatu dugu. Nik beti kamera grabatzeko prest eta eskura neukan, eta Mariellek zerbait interesgarria ikusten zuenean, hori jakinarazten zidan eta lanari ekiten genion. Gehienetan, Mariell aitonarekin hitz egiten hasten zen une hartan garrantzitsua zen gaiari buruz, eta egoera bideratzen zuen guk nahi genuen lekura iristeko; ni, berriz, diskrezioz mugitzen nintzen, arreta handirik ez erakartzeko eta oharkabean pasatu nahian.











## 6. Etalonajea

*Historier fra Gokk*-en argazki-zuzendaritza egiteaz gain, etalonajea egiteaz ere arduratu naiz, eta horretarako DaVinci Resolve erabili dut, kolorea oso modu intuitibo eta eraginkorrean lantzea ahalbidetzen baitu, Premiere bezalako beste programa batzuekin alderatuta. Ondo ezagutzen dudan programa da, ediziorako aspaldian gehien erabili dudana da.

Pieza dokumentala denez, zuzendariak eta biok errealitatearekiko oso leiala izango zen look bat lortu nahi genuen, baina aldi berean estetikoa eta landua izango zena. Biok maite ditugu fotokimikoak sortzen dituen irudiak, eta horregatik DaVincirako Dehancer izeneko plugin bat erabiltzea erabaki nuen. Plugin horrek Kodak Vision 3 50D, 250D, 200T eta 500T, Kodak Portra 400 eta Cinestill 800T bezalako pelikula tipikoen ezaugarriak emulatzen ditu, eta oso modan dago, behin Resolven etalonatzeari buruzko oinarrizko ezagutza lortuta erabiltzeko oso erraza delako.

Hala ere, etalonajearen prozesua nahiko neketsua egin zait, horren iraupen luzeko proiektu bat koloreztatu dudan lehen aldia izan da. Gainera, espazioek zuten argi naturala bakarrik erabiltzeak askotan argia ideala ez izatea suposatzen zuen. Hala eta guztiz ere, look "landuegi" bat nahi ez nuenez, klip gehienetan nodo-egitura sinple samarra erabili dut, eta horrek dezente arindu du prozesua.

Normalean, seriean ipinitako bi nodorekin hasi izan naiz, eta bigarrenari Dehancer pluggina gehitu izan diot. Hori egin ondoren, input atalean parametro zuzenak hautatu ditut, BRAW artxibotik bihurketa egiteko, eta, ondoren, emulatu nahi den pelikula mota aukeratzen da. Nik 50Da kanpoaldeetarako eta 200Ta barnealdeetarako erabiltzea erabaki nuen; izan ere, izenek adierazten dutenez, 50Da daylight koloreko temperatura baterako pentsatuta dago, eta 200Ta tungsten koloreko temperatura baterako. Barrualdeetarako ez ezik, azken hori argi gutxiko baldintzetan edo gaua denean ere erabili ohi da.





Irudian ikus daitekeenez, pluginak "negatiboa behartzeko" aukera ere ematen du (*Push/Pull*). Hau da, Dehancerrek ez du soilik look analogiko bat lortzen laguntzen, baizik eta irudia benetan negatibo batekin lanean ariko balitz bezala lantzeko aukera ematen du. Gainera, fotokimikoaren "ezaugarri" tipikoak gehitu ditzakezu: halazioa, blooma, grano... Hala ere, proiektu honetan ez dut aukera horietako bat bera ere aplikatu; adibidez, ez dut bloomik erabili, Tiffen Pro Mist filtroarekin lortzen nuen zerbait delako.



Ikus dezagun orain kolorea nola landu dudan adibide zehatz baten bitartez. Behin bigarren nodoari Dehancerra gehitu ondoren, lehenengoan hasiko gara lanean oinarrizko doikuntzekin: esposizioa, saturazioa eta kolore-tenperatura. Horren ondoren, eta nodo berean, ia behin betiko look-a lortzen da, hainbat tresna erabiliz, hala nola, *hue vs hue* kurbak eta *color wheels* tresnak. Horrela, plugina, atzeko nodo batean dagoenez, lehenaren gainera aplikatzen da. Kasu honetan ikus daitekeenez, gizonaren azala magentuegia eta saturatuegia zegoen (horrela adierazten du bektorskopioak). Hori konpontzeko, beste nodo bat gehitu dut bigarrenaren ondoren, eta *qualifier*-arekin bere aurpegia hautatu dut. Azala ondo aukeratuta daukagunean, saturazioa pixka bat jaitsi dut, eta *hue vs hue* kurban berdeetara eraman ditut gorriak, *skin tone indicator*-era egokitu arte. Bektorskopioan ikusten denez, hasieran azalaren espektroa gorriegi zegoen.

Aipatzekoa da azalaren espektroa bektorskopioan nahiko handia dela, larruazalaren hautaketa ez delako perfektua. Irudian ikusten den bezala, atzealdeko teilatuak eta azalaren antzeko beste koloreren bat ere hautatuta daude, baina oraingo honetarako ez zitzaidan axola, berdin baitzitzaidan gorri pixka bat jaitea aukeratutako bestelako eremuetan ere.



BRAW (log)

Rec709

Rec709 + Dehancer

Look

Finala, azala zuzenduta



Hala ere, beste batzuetan, non hautaketak guztiz garbia izan behar zuen, maskarak erabili eta trakeatu ditut, doiketa irudiarekin batera, aldi berean, mugitzeko.









Lehen aipatu moduan, dokumental hau grabatzeko erronka handienetako bat barrualdean grabatzea izan zen, espazioek zuten argiarekin, eta plano hau adibide garbia da. Lehen irudian ikusten den bezala, Rec709an, kanpoaldearen eta barnealdearen arteko diferentzia luminikoa abismala da, kolorearen kuantitateari eta tenperaturari dagokionez. Aukera izan banu, barruko argi guztiak itzaliko nituzkeen (erabateko kontrola izateko) eta kanpoan argi-iturri bat jarriko nukeen (apur bat pikatuta eta difusio apur batekin), protagonistari apuntatuz argi maila pixka bat igotzeko. Bestalde, 6500k inguruko kolorea ematean, kanpoko argia imitatzea lortuko genuke, beraz, naturala izango litzateke eta ez batere artifiziala. Gainera, agian bere aurpegiaren ezker aldean bounce pixka bat ere gehituko nukeen, alde horretako argi maila igo eta aurpegian kontraste gutxiago izateko. Egia esan, Harjeet hondotik nahiko bereizita dago, eta, beraz, horrekin nahikoa izango zen; hala ere, kicker arin bat gehitu zitekeen atzetik, ilearen inguruan halo txiki bat sortzeko eta sakontasun handiagoa lortzeko.

Errealitatera itzulita, ez genuen ez materialik ez denborarik, beraz, zegoenarekin jolastu beharra zegoen. Harjeet leiho baten ondoan jartzea erabaki nuen, argi iturri nahiko noranzkoa izateko eta, aldi berean, nahiko leuna izateko; ondoren, grabazio angelua hau izatea proposatu nuen, atzeko leihoak sakontasun handiagoa sortzeko. Bestalde, leihotik kanpo ikusten den hormak konposizioari laguntzen zion testura bat zuen, erabat leuna ez zelako; hala izan ez balitz, hutsune- eta desoreka-sentsazio handiagoa emango zukeen konposizioan. Gainera, barruko hormaren ihes-puntua diagonalak izateak geruza eta sakonera gehiago sortzen ere laguntzen du. Azkenik, kameratik hurbilen dagoen profila ilunena izateak ere alde jokatzeko du; kontrakoa izango balitz, protagonistaren aurpegia lauegia izango litzateke eta sakontasuna galduko genuke.



Rec709 irudiaren *waveform*-ak zuzendu beharreko lehen gauzak erakusten dizkigu. Hasteko, irudiaren eskuineko erdialdea ilunegi dagoela adierazten digu. Beraz, bigarren nodoan Dehancerra aplikatu ondoren, lehenengoaren (oinarrizko doikuntzak) eta bigarrenaren (Dehancer) artean beste bat sortu nuen maskara bat aplikatzeko eta erdi horren esposizioa igotzeko, lehen mailako kolore gurpilekin jokatu. Landu beharreko hurrengo gauza zuri balantzea zen, *waveform*-ak adierazten duen bezala, kanpoaldeko pareta urdin eta ez zuri baitzegoen; beraz, gain gurpilean gorri, urdin eta berdeekin jolastu nuen errealitatearekiko leialagoa izango zen zuri bat lortzeko. Izan ere, *lift* gurpilak batez ere irudiko eremu ilunei eta gamma gurpilak batez ere luminantzia "ertaineko" eremuei eragiten dion moduan, *gain* gurpilak batez ere eremu argiei eragiten die. Bestalde, barrualdea berdeegia iruditzen zitzaidan eta magentara bota nuen pixka bat gehiago; gero, beste nodo batean, maskara bat egin nuen bere azalean azal tonu perfektua lortzeko. Azkenik, beste maskara bat egin nuen leihoan, itzalak pixka bat jaisteko eta testura gehiago lortzeko, eta aulkietako beltzak garbitu nituen *lum vs sat* kurbarekin.

Azken lookaren *waveform*-ean ikusten denez, irudia hasieran baino parekatuagoa dago, eta kanpoko zuriak ia zuriak dira. Azkenean, kolore-tenperaturaren oreka egokia lortzen da barrualdearen eta kanpoaldearen artean.







BRAW (log)

Rec709

Look finala







## 7. Bukatzeko

Amaitzeko, esan nahiko nuke dokumental labur honetako argazki zuzendaritza eta etalonajea egitea izugarrizko esperientzia ona eta erronka handia izan dela. Izan ere, nahiko pozik geratu naiz emaitzarekin eta Røst-era bi pertsonako taldea joan ginela kontuan hartuta uste dut lan on bat lortu dugula. Noski, horrelako pieza handi bat filmatzen dudan lehen aldian da, beraz hainbat gauza asko hobetu daitezkeenaren kontziente naiz. Alde teknikoaz harago, proiektu honek badu baita bere alde sentimentala, fase baten bukaera ere bada Norwegian hasi eta bukatzen dena.



dokumental labur baten argazki zuzendaritza eta etalonajea

# Historier fra Gokk

